

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2024ko irailak 27 · 1326 zenbakia



## MIHIAK DANTZAN MINTZAPRAKTIKAREN ARRAKASTA

Toribio Etxebarria, 1



**EUKI**  
inmobiliariak

*20 urtetik gorako esperientzia eskaintzen dizuegu balorazioetan eta eraikinetako salerosketa, alokairu eta traspasorako bitartekotzan*



**API**

bisitatu gure eskaintzak web-ean  
[www.euki.com](http://www.euki.com)

**GALDETU: 943 20 03 58 / [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)**

ARRATE HOMES · EIBAR

# PISU PILOTU BERRIA



Ez imajinatu, hurbildu eta utzi harritzen



**Obra berriko** etxebizitzak:

Garajea | Gimnasioa | Gourmet aretoa | Trastelekua

 **Neinor** HOMES

**900 11 00 22 · [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

[www.cristinabaz.com](http://www.cristinabaz.com)

[cristinabaz@icagi.net](mailto:cristinabaz@icagi.net)

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

[www.gaurve.es](http://www.gaurve.es)

[consultores@gaurve.es](mailto:consultores@gaurve.es)

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

[www.cristinabaz.com](http://www.cristinabaz.com)

[cristinabaz@icagi.net](mailto:cristinabaz@icagi.net)

### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

[egurenyasociados@gmail.com](mailto:egurenyasociados@gmail.com)

### GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

[www.gestilan.es](http://www.gestilan.es)

[gestilan@gestilan.es](mailto:gestilan@gestilan.es)

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Asteburuan Ipuruako jaiak ospatuko dira. Hainbat hamarkada eta gero, bueltan dira auzoko jaiak eta Ipuruako Jai Batzordeak bi eguneko egitaraua prestatu du itzulera hori ahalik eta modurik onenean ospatzeko.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatzea

Urriaren 1ean Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Baina Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak irailaren 30a, astelehena, aukeratu du ospatzeko, adinekook pairatzen ditugun arazoak salatzeke, eta gure beharrak eta eskubideak aintzat hartzeak duen garrantzia nabarmentzeko egun garrantzitsu gisa.

Gutxieneko pentsio publiko eta duinak eskatzen direla azpimarratuko dugu, eta, bereziki, adineko pertsona guztientzako arreta eta zaintza publiko eta kalitatezkoa izateko premia. Eta, dimentsio zabalagoa emateko, eta parte-hartze soziala azpimarratzeko, interpretazio interesaturik gabe, benetako KPI aplikatzeari buruzko gure eskaerei eusten diegu, jakina, indarrean dauden beste eskubide batzuk (erosteko ahalmena berreskuratzea, esaterako) aldarrikatzeari utzi gabe.

Gure ustez, emakume pentsiodunak diskriminatzen dituen genero-arrakala lehenbailehen desagertu behar da, eta alargunek ere ez dute murrizketarik zertan jasan ezkonkideekin batera kobratzen zituzten pentsioetan. Era berean, bidegabekeria onartezina iruditzen zaigu erretiratuek beren borondatearen aurka pentsioen zati handi bat murriztuta ikustea, 40 urte kotizatuta izan arren. Oraindik ere, gutxieneko pentsioa ez dela inolaz ere 1.080 eurotik beherakoa izan behar eskatzen jarraitzen dugu.

Debabarreko pentsiodunen mugimendua Eibarren mobilizatuko da hilaren 30ean, eguerdiko 12etan, Untzaga plazatik abiatuta, foru aldundien eta Gasteizko gobernuaren propaganda eta autokonplazentzia diskurtsoak salatzeke.

Pentsiodunen mugimendutik dei egiten diegu herri-tarrei eta, bereziki, adinekoiei eta pentsiodunei, manifestaziora joateko, ontzat eta beharrezkotzat jotzen baitugu pentsioak eta zerbitzu publikoak defendatzea, agintean dagoena edozein dela ere.

**Debabarreko Pentsiodunen Mugimendua**

## Mobilidade Astearen hitz txikia

Garraio publikoa indartzeko politikak martxan jarri dituzte azkeneko bi urteetan. Azken neurria, 12 urtetik behe-rakoentzako doan izateko proposamena izan da. Merketze neurri hauek proposatu eta onartzen direnean, jarraipenik al dago? Noizean behin, berrietan entzuten da garraio publikoaren erabiltzaileak igo edo jaisten den portzentaje hotz bat... Baina, aurreikusten al da baliabide nahikorik dagoen edo kalitatea bermatuko den neurri horiek duten ondorioekin? Ez dut uste.

Egunero Bilbora lanera edo ikastera joan-etorria egiten dugun eibartarrok asko gara. Orain dela urte gutxi batzuk puntualki gertatzen ziren egoera deserosoak (zutik egitea bidea, adibidez) orain egunero pairatzen ditugu.

Irailaren 9az geroztik, lehenengo autobusa, 06:40koa, unibertsitatean hartzen dugunok, ia egunero (bost egunetatik lau) zutik joan izan gara Bilbora, Untzagatik ere jende asko jarlekurik gabe datorrelako. Bilboko Zabalburuko azkeneko paradan hartzen dugunok, askotan, zutik bueltatu edo autobus bete-bete bat gure aurretik gelditu gabe pasatu izan dela ikusi dugu, ezin duelako jende gehiago eraman, gu Bilbon utziz.


Bizkaibusen hamaika kexa sartu ditugu. Ematen dizkiguten erantzunek ez dute zentzurik: berrogei lagun zutik joatea legala dela. Ertzaintzak baiezkkoa dio, egoera hone-tan, hori bai 80 km/orduko abiaduratik pasatzen ez bada. Benetan?? Bere momentuan (orain dela urte dezente, bidaiari kopurua txikiagoa zenean), Ermurako jarri zutela beste autobus bat eta orain ez dituztela gehiago jarriko...

Badakit ez dela Eibarko Udalaren kompetentzia, baina eibartar askoren interesa babesteko eskatu nahi diot. Maila politikoan eskaera egitea Eibartik irteten den garraio publikoa katitatezkoa izan dadin. Ezin dugu onartu eibartarroi bigarren mailako erabiltzailetzat jotzea. Durango eta beste herri batzuetara dagoen autobus maiztasuna ikusita, zergatik gu horrela ibili behar? Bizkaibusek datuak dauzka. Behar gehiago dituzten orduategiak eta herriak zeintzuk diren badakizki. Diru publikoa ez dadila neurri populistetan gastatu, benetazko eta kalitatezko garraio publiko baten bultzadan baikik.

**Iratxe Gimenez Hermosa**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PARRAPARRIAN / PARRAPASIAN** → Ume-jolas batean ibili. Buztin lurreko aldapan ura (batzutan txisa) botatzen zen, gero errazago laban egiteko. Laban egite hori bi eratakoa zen: makurtuta oin puntetan, edo lurrean jarrita. "Parrapasian ibillitta hor dator gure granujia ipurdi bueltia zihero lokaztuta".



Idurre Iriondo

### Farmaziak

- BARIXAKUA 27**
  - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
  - ZAPATUA 28**
  - EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
  - DOMEKA 29**
  - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
  - ASTELEHENA 30**
  - EGUNEZ | Zulueta** (S. Agustin, 5)
  - MARTITZENA 1**
  - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
  - EGUAZTENA 2**
  - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
  - EGUENA 3**
  - EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
  - BARIXAKUA 4**
  - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
- GAUEZ BETI**, 2024an,  
Lekunberri (Isasi, 31)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Carlos Cid Gonzalez**. 85 urte. 2024-09-21.
- **Maritxu Aranzabal Errasti**. 89 urte. 2024-09-23.
- **Mari Carmen Izagirre Unamuno**. 95 urte. 2024-09-25.



## Sanmiguelak ospatuko dituzte asteburuan Aginaga auzokoek

Aginagako jaiak ospatuko dira asteburuan, bertako jai-batzordeak antolatatu duen programazioarekin. Bihar, San Miguel bezpera ospatzeko, 18:00etan Aginagako ermitako kanpaiak irauliko dituzte. Eta domekan, San Miguel egunean, meza nagusiarekin hasiko dute eguna, 11:00etan. Urtero bezala, San Andres parrokiako abesbatzak kantatuko du bertan (hankasartze bat tarteko, jai-egitarauan Sostoak abestuko duela agertzen den

arren). Ondoren, Usartza Txistulari Taldearen emanaldia hasiko da. Eguerdian, hamarretakoa hartu eta umeendako jolasak egingo dituzte. Nahi duten auzokide eta lagunek elkarrekin bazkalduko dute gero, 14:30ean hasiko den paella-jan herrikoian. Eta, arratsaldean, Joselu Anaiak taldekoek alaituko duten erromeria egingo da. Eta, jaiak agurtu aurretik, jai-batzordeak saldutako rifen zozketa egingo dute, 20:00etan.

## Jon Alonso eta Jurgen Landa eibartarrak ETB1eko 'Ztanda' saioan ari dira

Aste honetan hasi da ETB1en Euskal Herriko artistarik onena bilatzera helburu duen 'Ztanda' saioaren bigarren denboraldia, eta Jon Alonso eta Jurgen Landa eibartarrak arituko dira lehian, beste 11 artistarekin batera. Biak abeslari bikainak dira, Eibarko Koro Gaztean ibilitakoak, eta herriko hainbat musika proiektutan hartu dute parte. Saioa martitzenero jarraitu ahal izango da, 22.30ean.



## Odisea elkartekoek Ulises mahai-jokoan jardunaldia egingo dute urriaren 19an

Hirugarrenez egingo dira *Los Juegos de Ulises* mahai-jokoan jardunaldiak, Odisea elkartekoek eskutik. Errebal Plazan izango dira urriaren 19an, eta egitarauak egun osoa beteko du, 08:00etatik 20:30era. Aurrekoetan bezala ludoteka, txapelketak, rol-jokoak eta beste jarduerak batzuk egingo dira. Besteak beste, *Warhammer 40k*, *Carcassonne 1vs1* eta *Blood Bowl* jo-

koen txapelketak egingo dira. Parte hartzeko interesa duenak 654 839 645 telefono zenbakira deitu dezake, informazio gehiago eskatzeko zein izena emateko. Bestela ere, antolatutako jarduera guztien berri zehatzagoa ematen joango dira, Internet bitartez: Odisea elkartearen webgunean (<http://asociacionodisea.com/>) begiratu daiteke, baita elkartearen sare sozialetan ere.



## Eibarko Udalaren marka-irudi berria eta itxuraberritutako webgunea aurkeztu dira

Aste honetan aurkeztu du Eibarko Udalak marka instituzional berria. Jon Iraola alkatearekin eta Ana Telleria Gobernu Irekiaren zinegotzi ordezkariarekin batera, Identitate Bisual Korporatiboaren proiektu berriaz arduratu den AZK komunikazio agentziako Miren Barreneitea, eta Udalaren webgunea birdiseinatu duen CodeSyntax-eko Lur Ibargutxi egon ziren ekitaldian. Azaldu zuten, irudi berrirako aukeratu duten proposamenak Eibarko armari ofiziala hartzen du oinarri eta ardatz, eta armariaren silueta erabiliz, eta erdian San Andresen gurutzea jarrita, bi elementuen arteko uztarketa egiten

da. Era berean, tipografia berriztu da, eta kolore korporatiboak eguneratu dira. Logotipo berria “Eibar” markaren (Udala | Ayuntamiento barne) azpian ageri da, eta hainbat formatu eta euskarritara egokitu daiteke. Bigarren mailako markak ere sortu dira, Udalaren arlo eta zerbitzuetarako. Marka guztiak azaltzen dituen eskuliburu Udalaren webgunean ([www.eibar.eus/identitatekorporatiboa](http://www.eibar.eus/identitatekorporatiboa)) eskuragarri dago. Marka instituzional berria sortzearekin batera, Udalaren web-orria birdiseinatu eta konfiguratzeko lanak ere egin dira, “edukien irisgarritasuna eta argitasuna errazteko”.

## Bidegorrian ipinitako argiztapen berriarekin %60 jaitsiko da kontsumoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Eibar eta Elgoibar arteko bidegorrian ezarri duen argiztapen berriari esker kontsumo elektrikoa %60 jaitsi ahaliko da. Vinci Energies Spain konpainiaren Omexom enpresak ipini duen sistemak 389.000 eu-

roko inbertsioa behar izan du, eta Diputazioak finantzatu du osotasunean. Argiztapen-sistemak automatikoki ixotzeko LED teknologia erabiltzen du, eta hori erloju astronomiko batek kontrolatzen du, kanpoan dagoen argiaren arabera.

## AUTUAN

### 1945. URTEAN JAIOTAKOAK URRIAREN 24an ELKARTUKO DIRA BAZKARIA EGITEKO

1945eko “Gran Reserva”-koek (horrela definitzen dira) urriaren 24an biltzeko asmoa dute, euren eguna ospatzeko. Egun horretan, eguerdiko 12:00etan, Untzaga plazako gradetan elkartuko dira, unea aprobetxatzeko talde-argazkia ateratzeko. Aperitiboa izango dute jarraian, eta ondorengo bazkaria ere ez da faltako. Dantza eta zozketak osatuko dute eguneko egitaraua. Egun horretako ekitaldian parte hartu nahi duenak 70 euro ingresatu beharko ditu Kutxabank-en (ES53 2095 5035 0191 2441 5041).



### EIBARKO BI BOTIKARIK HITZALDIA EMANGO DUTE EGUNEAN BEHEKO-TOKIN

Beheko Tokia gizarte-ekintza guneak hitzaldia antolatu du datorren asteko egunerako (urriak 3), 17:00etan, Karmen kalean duen egoitzan. Eibarko bi botikarik egingo dute berba: Ane Zulueta (Zulueta farmazia) eta Amaia Gorrotxategik (Hermanas Azkue farmazia). Besteak beste, sendagaien erabilera zuzena zein den azalduko dute, eta inhalagailuei buruz ere arituko dira.





## Urriaren 11ra arte eska daitezke Lanbidek ekintzaileentzat ematen dituen laguntzak

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko dirulaguntza deialdia abiatu du. Debarrenean negozio ideia bat landu edo enpresa-proiektu berria martxan jarri nahi duten herritarrek Debegesa garapen agentziaren bitartez egin dezakete eskaera, eta horretarako epea urriaren 11n amaituko da. Dirulaguntza hauek bideratzeaz gainera, Debegesak aholkularitza eta beharrezko duten laguntza eskainiko die ekintzaileei,

eta plazak mugatuak dira. Negozio ideia lantzeko laguntza, gehienez ere, 1.000 eurokoa izango da; Enpresa-proiektu berriak martxan jartzekoa, berriz, 1.500 eurokoa. Interesa dutenek Debegesaren bulegoetan aurkeztu behar dute dokumentazioa. Informazio guztia, eta eskabide-orrria Debegesaren webgunean eskuratu daitezke. Argibide gehiagorako 943 82 01 10 telefonora deitu, edota ekintzaile@debegesa.eus helbidera idatzi.

## Unbeko taberna kudeatzeko lizitazio prozesua zabaldu du Udalak

Unbeko tabernaren jabari-emakidaren lizitazio-prozesua abiarazi du Udalak, utsiapenerako kudeatzaile berriak aukeratzeko. Kontrata eskuratu nahi dutenek 2024ko urriaren 21era arte aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Lizitaziorako oinarri izango den urteko kanona 6.600 eurokoa da, eta esleipena bi urteko hasierako aldirako egingo da. Baldintzen artean zehazten da, halaber, esleipendu-

nak taberna irekita eduki beharko duela, martitzenetik barixakura, 17:00etatik 21:00etara, eta zapatu eta domeketan, 10:00etatik 20:00etara. Bestalde, Udalak argitara emandako klausulen agiriak esleipendunak bete beharko dituen betebeharrak jasotzen ditu, eta prozesuaren xehetasunak eta baldintzak Eusko Jaurlaritzak prestatuta duen kontratazio webgunean kontsultatu daitezke.

## 2023-2024 ikasturtean titulatu berri diren ikasleen graduazio ekitaldia egingo da gaur Hezkuntza Esparruan

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Graduazio Ekitaldia egingo da gaur, 18:00etan, Eibarko Hezkuntza Esparruko Areto Nagusian. Bertan diplomak banatuko zaizkie Energia Berriztagarrien Ingeniaritza Graduko X. promozioko eta Kontrola Sare Elektriko Adimentsu eta Sorkuntza Banatuan Unibertsitate Masterreko VII. promozioko tituluak. Agustin Erkizia UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordea, Jon Iraola Eibarko alkatea, Miren Artaraz unibertsitate politika eta koordinazio zuzendaria Eusko Jaurlaritzan, Xabier Ostolaza Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako zuzendaria eta Patxi Alkorta Eibarko ataleko koordinatzailea izango dira ekitaldiaren buru.



## Euskadiko Adinekoen II. Topaketa Astelena frontoian

Urriaren lehen egunean Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, horren harira Euskadiko Adinekoen II. Topaketa egingo da martitzenean Eibarren. Euskadi osotik etorriko dira, eta ekitaldia Astelena frontoian izango da, 11:30etik aurrera. Amaiera eta luntxa Errebalen egingo dituzte.





Anartz Mitxelena eta Ekaitz Juaristi ...eta kitto! Euskara Elkartearen gizarteratze kanpainarekin. SILBIA HERNANDEZ

## ...eta kitto!-ren jaia ospatuko dugu urriaren 5ean

Ohikoa den bezala, urriko lehen zapatuan ospatuko da ...eta kitto! Euskara Elkartearen jaia, lehengo "Sagardo Eguna". Izen aldaketa euskara elkartearen gizarteratze kanpainarekin lotuta dago. Elkartetik diotenez, "urte hasieran ekin genion gure elkartearen gizarteratze kanpainari. Helburua da herritarrek elkartearen hobeto edo gehiago ezagutzea, zer den, zeintzuk diren bere balioak, zer egiten duen eta zertarako. Asmo horren haritik etorri da iaz arte Sagardo Eguna moduan ezagutzen genuen ekitaldiaren izen-aldaketa. ...eta kitto!-ren jaia izango da hemendik aurrera".

Urriaren 5ean ospatuko den ekitaldiak, hori bai, ohiko helburuei eutsiko die, hau da, euskal giroa sustatzea, euskaraz berba egiteko espazioak sortzea, herriko giroa piztea... eta, horrez gain, ...eta kitto!-tik diotenez, "orain arte sagardoaren mundua zabaldu eta euskara plazara ekarri nahi izan dugu; aurtengo, kontzeptua aldatu egingo dugu eta, sagardoaren ordez, gure herriko komunitate euskaltzalea izango da protagonista nagusia, eta horren erreferente ikusgarriena ...eta kitto! Euskara Elkartearen".

Azken urteetako jarraituz, goiz eta arratsaldeko saioetan banatu-

**Aurtengo berrikuntza moduan, Patxangoi elektrotarangak girotuko du iluntzea, eta egun osoan photocalla egongo da**

ko da 29. edizio hau ere: eguerdiko 12:00etatik 14:30era arte lehenengo eta 19:00etan hasi eta sagardoaren agortu arte bazkal ostekoa. Aurtengo Berezartua, Lizagar, Zabala, Sainzar eta Oyarbide-Zabalegui sagardotegietatik ekarritako sagardoaren dastatzeko aukera izango da. Tiketak 10 eurotan salduko dira (edalontzia + zapia + pintxoa), eta pintxoa soilik nahi dutentzat 2 euroko tiketak egongo dira.

Goizeko saioa 12:00etan zabalduko da eta, txotx egitearekin batera, euskaltzaleasunari eskainitako saria jasoko du Zalao Urain musikariak: "Euskarari eta euskal kulturari egiten dien ekarpen handiagatik; musikari, hezitzaile eta euskaltzale moduan, Eibarren eta Eibarko mugetatik harantz. Konprometitua, eskuzabala, ausarta, eragilea... Zaila da Zalao hitz bakarrarekin definitzea. ...eta kitto!-rekin harreman estua izan du gaztetatik, gaur egunera arte iristen dena. Ondo merezitako saria jasoko du", diote elkartetik.

**Euskal musika, tola eta kirikoketa**  
Musika Eskolako Marisol Arrillagaren taldeko trikitilariak eta Asier Osoro txalapartariak girotuko dute eguerdia. Gainera, sagardoaren egiteko prozesua bertatik bertara ezagutu nahi duenak dolarea izango du ikusgai (sagarren prentsatua eta ekoizteko tresna) eta, nola ez, kirikoketarekin sagarrak txikitzearen aukera izango da.

Aurtengo berrikuntza moduan, Patxangoi elektrotarangak girotuko du iluntzea, eta egun osoan photocalla egongo da. Bestalde, aurtengo argazki-lehiaketa antolatuko da. Eta, egunaren amaieran, luxuzko asteburua zozketatuko da tiket-salmenta puntuan, 20:00 bueltan. Rifak salgai daude oraindik ere euro batean hainbat tokitan, eta egun horretan ere hain izango dira.

# Jaiak Ipurua auzora itzuliko dira asteburu osorako egitarauarekin



Hainbat urte pasa dira Ipuruako jaiak azken aldiz ospatu zirenetik, baina auzokideek bolada horrekin amaitu eta auzora festa giroa ekartzea erabaki dute. Horretarako, ekintzaz beteriko bi egunetako egitaraua prestatu dute. Egundateko egitaraua prestatzea zen antolatzaileen asmoa, baina auzokideek gogotsu hartu dute jaiak egiteko proposamena eta egun bakarra motz geratzen zitzaien.

BIDEOA



**J**aiak ospatzeko egun gutxi falta direla, Ipuruako Jai Bartzordeko Ivan Lopezekin eta Ainitze Ansorregirekin elkartu gara. Egitaraua zehaztuta, prestaketen azken xehetasunak ixten ziharduten, baina gogotsu zeuden asteburua iritsiko zain. Herriar guztiak Ipuruara gerturatze-ko deia egin dute eta, hori asteburuan ikusiko den arren, badakite bazkarian behintzat jende ugari bilduko dela. “Txartel guztiak saldu dira eta 350 lagun elkartuko gara. Toki gehiago edukiz gero, ehun lagun gehiago etorriko lirateke”, dioskue pozik.

Bazkaria 15:00etan egingo da, bihar, Mogel ikastolako patioan, baina Ipuruako jaien egitaraua goizean goizetik hasiko da, 08:30ean hain zuzen ere. Ordu horretan Argatxan elkartuko dira Ipuruatik ez oso urruti mendi buelta egiteko. “Denok parte hartu ahal izateko moduko ibilaldia egingo dugu”, aurreratu digute. Ekintza horretan parte-hartze-ko ez da beharrezkoa izango izena

ematea eta Argatxan agertzearekin bakarrik nahikoa izango da.

Ibilaldi osteko egarria eta gosea asetzeko salda eta txorizoa eskainiko dute Ipurua elkarte gastronomikoan, eta ondoren, 11:00etan, txupinazoa botako dute.

Jaiari hasiera ofiziala emanik, 11:30ean herri-kirolak egongo dira Mogel ikastolako patioan eta trikipoteoa egingo dute bazkalordua iritsi aurretik.

Bazkalostean Koralito abesbatzak emanaldia eskainiko du Mogelen. Koralito 2023. urtearen amaieran sortu zuten Ipuruan eta belaunaldi ezberdinetako lagunek osatzen dute Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen abesbatza.

Musika emanaldiaren ondoren jolasek hartuko dute Mogelesko patioa eta hauek amaitzen direnean kontzertuen txanda iritsiko da. Guztira hiru talde arituko dira Ipuruako jaietan: Erramunak, Makis 37 eta Mugi Panderoa.

Zapatua ekintzaz beterik etorriko den arren, domekan goize-



Ipuruako Jai Batzordeko Ivan Lopez eta Ainitze Ansorregi jaietako kartelarekin. EKHI BELAR

tik egongo da martxa Ipuruan. Horrela, 10:30ean toka eta igel txapelketa jokatu da San Pio X elizaren parean Ipuruako jubileu txearen eskutik.

Joko tradizionalekin jarraituz, baina hau pixka bat modernoagoa, 11:30ean Scalextric zirkuitua jarriko dute Jazinto Olabe parkean eta txokolatada ere eskainiko dute.

Eguerdian, 12:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza egingo da San Pio X elizan, festaz gozatu ezin dutenak gogoratuz.

Pixka bat beranduago, 12:30ean, KAXA sormen gunekoek erakustaldia eskainiko dute Jazinto Olabe plazan eta ondoren, 13:30ean, jaiari amaiera emango zaio toki berean. Horretarako, bermutada egingo da DJ Eustah-ek girotuta.

### Auzokideen parte-hartzea

Sei lagunek osatzen dute Ipuruako Jai Batzordea eta lan handia egin

dute jaiak antolatzen. “Jaiak beste aldetik ikusi izan ditugu eta antolakuntzan sartzekoan ikusten duzu nolako lana egin behar den”, aitortu digu Ivanek. Hori bai, auzokideen erantzuna bikaina izan dela aipatu digute eta oso eskertuta agertu dira. “Jendea asko inplikatu da eta oso pozik gaude”, diosku Ainizek.

Auzokideez gain, auzoko tabernek eta dendek ere jaien aldeko apustua egin dute eta azken hilabeteotan hainbat zozketa egin dituzte, kamisetak saldu eta beste ekintza batzuk, girotzen hasteko. Gainera, errifan salmentarekin jaietarako dirua bildu ahal izan dute. “Ez genuen dirua eskatzen ibili nahi, jendea ere zerbait eskaintzea nahi genuen”, azaldu digu Ivanek.

Indartsu itzuli dira Ipuruako jaiak eta asteburu bikaina biziko da auzoan. Jaiak jarraipena izatea espero dute, baina momentuz asteburukoaz gozatzea dute helburu.

**Auzokideen erantzuna bikaina izan da eta biharko herri-bazkarirako txartel guztiak saldu dituzte**

**Erramunak, Makis 37 eta Mugi Panderoa taldeek kontzertua eskainiko dute bihar gauean**

# BERBETAN, euskararen ahotsa Eibarren

Badira 22 urte ...eta kitto! Euskara Elkartek Berbetan mintzapraktikako programa martxan jarri zuela. Euskara praktikatzeko aukera eskaintzeko asmoz jaio zen egitasmo xume hura egitasmo sendo eta eraginkor bilakatu da. Gaur egun 80 lagunetik gora elkartzen dira astero Eibarren euskaraz jarduteko. Ikasturte berriko izen-ematea zabalik dago.

Informazio  
gehiago:



**E**ibarren asko dira euskaltegian dabiltzanak, baina euskara ikasten ari direnek hainbatetan ez dute aukerarik ari direna beste batzuekin praktikan jartzeko eta ikaste-prozesua indartu eta finkatzeko. Mintzapraktika-programak hutsune hori estaltzeko sortu ziren, euskara praktikatzeko aukera gisa. “Askok ez dute inguru euskaldunik eta ez dute euskara norekin praktikatu. Premia horretatik abiatuta jaio zen Berbetan”, diote ...eta kitto!-tik.

Ahozko euskara hobetu nahi dutenei topaleku ederra eskaintzen die programak; giro natural eta informalak lagunduta, euskaraz lasai berba egiteko aukera ezinhobea, lotsa eta konplexuak alde batera lagata. Parte hartzeko arrazoiak hainbat izan daitezke, “euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzea, inguru hurbilean euskaraz berba egiteko inor ez izatea, euskaraz hitz egiteko ohitura berreskuratzea, azterketa prestatzea, lagun

berriak egitea edota giro euskalduneari murgiltzea”, euskara elkarteko arduradunen hitzetan. Azken batean, euskararen erabilera bultzatzea eta zabaltzea da Berbetan-en helburu nagusia, “erabiltzea baita hizkuntza bat ondo ikasteko modurik egokiena, eta proiektu honek hori ziurtatzen du”.

## Astean behin, ordubete

Funtzionamendua sinplea da, baina oso eraginkorra: talde txikiak osatzen dira, talde bakoitzean, gutxienez, euskaraz hitz egiteko ohitura duen hiztun batek parte hartzen du eta astean behin elkartzen dira, gutxienez ordu batez. Denbora-tarte horretan “talde bakoitzak erabakitzen du zer egin nahi duen, kafe bat edo pote bat hartu, paseatu, kirola egin... Behar eta gaitasunaren arabera taldeak ditugu, astelehenetik ostiralera, goizez zein arratsalde”. Horrez gain, hainbat ekintza osagarri ere antolatzen ditu ...eta kitto!-k berbalagunentzat ur-



Giro naturalean euskaraz berba egiteko lotsa gaintzen laguntzen die berbalagunei. EKHI BELAR

tean zehar: “Pare bat irteera egiten ditugu, udazkenean bata eta udaberrian bestea. Horrelakoak ere garrantzitsuak dira, talde ezberdinetako kideek elkar ezagutzen dute eta aukera polita izaten da berbalagunen euskal harreman-sarea zabaltzeko”. Iaz Bergaran eta Zeraingo meategietan izan ziren; aurtan, Hondarribi ezagutuko dute bertatik bertara urrian.

**Egitasmo gogoko eta eraginkorrak**  
Mintzapraktika-programen in-guruko asebetetzea altua da. ... eta kitto!-n argi dute hori: “Urteotako esperientziak erakutsi digu oso programa eraginkorra dela. Euskara praktikatu nahi dutenen hizkuntza-maila handitu egiten da eta gehiagotan erabiltzen dute. Eta euskaraz hitz egiteko ohitura dutenek ere oso modu positiboan baloratzen dute euren esperientzia, premia dutenen eboluzioa ikusiz benetako ekarpena egiten dutela sentitzen baitute”.

Gurasoen behar bereziak kontua harturik, Gurasoak Berbetan aldaera sortu zuen ...eta kitto!-k 2010ean, “familia-giroa euskalduntzeko helburuarekin, esparru estrategikoa osatzen baitu familiarik hizkuntzaren transmisioan”. Etxekoen artean eta beste guraso batzuekin elkartzean euskara gehiago erabili eta bertoko giroa euskaldundu nahi duten familientzat pentsatuta dago egitasmo hau, “etxeko hizkuntza ohituretan eragiteko, etxean eta kuadrillan euskara gehiago erabiltzeko, ahozko euskara hobetzeko...”.

#### Talde naturaletan

Izena familiaka eman badaiteke ere, askok talde natural moduan ematen dute izena: “Lehendik eginda dauden taldeek, parkean edo eskolan dauden guraso-taldeak edo asteburuetako kuadrillak, esate baterako, aukera polita dute euren egunerokotasunean euskara txertatzeko, euren artean euskara gehiago era-

**>>> "Euskararen erabilera bultzatzea du helburu programak, erabiltzea baita hizkuntza bat ikasteko modurik egokiena"**



Gurasoen hizkuntza-ohituretan eragitea du helburu Gurasoak Berbetan programak.



biltzeko. Horrez gainera, urtean hainbat irteera eta ekintza egiten dituzte.

### **Ongietorri, harrera eta elkarbizitarako programa**

Euskarara eta euskal kulturara gerturatzea eta jatorri ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzea du helburu egitasmo honek. Horretarako, “kultur eta jatorri ezberdinetako pertsonak elkartzen ditugu, herriko auzoetan, ordu eta erdiko saioetan, astean behin”. Euskara ezer ulertzen ez dutenei zuzenduta dago egitasmoa; euskara ikasten hasi aurretiko

pausoa dela esan genezake. Euskara, euskal kulturara eta Eibarko errealtatera gerturatzea garrantzitsua dela uste dugu, behin pauso hori emanda errazagoa izango baita euskara ikastera animatzea”.

### **Saio praktikoak, giro informalean**

Talde txikiak antolatzen dira, jatorri eta kultura ezberdinetako jendearekin eta saioak ...eta kitto!-ko teknikari batek dinamizatzen ditu, herriko lau auzotan (Urkizu, Ipurua, Amaña eta Urki) umeen eskola orduetan. Giro lasaiean gai ezberdinak lantzen dituzte oso modu

praktikoan. Gainerako egitasmoek bezala Ongietorri ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera ematen du, “eurentzat propio sortutakoetan, baina baita Gurasoak Berbetan-eko kideekin batera ere. Modu polita da herritarron arteko harremanak sendotzeko eta sarea osatzeko”.

## **Nola parte hartu?**

Egitasmoak doakoak dira eta urte osoan eman daiteke izena.

**943 20 09 18**

**[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)**

[elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)  
[ongietorri@etakitto.eus](mailto:ongietorri@etakitto.eus)

# Zer diote berbalagunek?

## BEAren taldea beteranoetakoa da.

Izango dira zortzi-hamar bat urte elkartzen hasi zirela. Beak euskaraz hitz egiteko ohitura du, eta praktikatzeko premia dutenei laguntzeko eman zuen izena.

“Taldea ederra dugu. Urte hauetan guztietan gauza asko gertatu zaizkigu denoi, aldaketak... eta gehienak partekatu ditugu, lagun-talde bat osatu dugu, eta hori dena euskaraz! Poz handia sentitzen dut ikusterakoan zelako aurrerapena egin duten, nola egiten zuten berba lehen eta nola orain... Berbetanek aukera eman dit jende berria ezagutzeko eta aldi berean euskara lantzeko eta bultzatzeko. Azken batean denok batzen gaitu helburu berak: Eibarko kaleetan euskara gehiago entzutea”.



## ANAK B2 azterketa prestatzeko asmoarekin eman zuen izena.

“Profila prestatzeko entzumen eta mintzamina hobetu behar nituen. Lagun batek animatuta hasi nintzen mintzapraktika egiten... eta kitto!-rekin. Izugarri lagundu dit entzumena indartzen eta mintzamina bizkortzen. Azterketa gainditu arren, taldean jarraitu dut, ikasitakoa ez galtzeko eta euskara gehiago erabiltzeko, nire inguru hurbilean ez baitut euskaraz aritzeko aukerarik”.



## NEKANEK bi egitasmotan dihardu.

Euskara praktikatzeko Berbetan-en eta, guraso den aldetik eta etxeko euskaraz arduratuta, Gurasoak Berbetan-en.

“Euskaraz jakin arren, urte askoan ez dut erabili eta erraztasuna galduta nuen. Asko trabatzen nintzen eta hiztegi falta nuen. Euskara hobetzeko modurik onena berba egitea denez, aukera ona iruditu zitzaidan Berbetan. Oso talde jatorra daukat, ostegun goizetan elkartzen gara, gauza askotaz hitz egiten dugu, modu informalean, eta igartzen dut, zenbat eta gehiago erabili orduan eta erraztasun gehiago dudala”. Bestetik, “gure kuadrillan, umeen asteburuetakoa giroa nahiko erdalduna da. Umeekin euskaraz jardun arren, gurasoen artean ez dugu erabiltzen. Txip hori aldatzeko asmoarekin eman nuen izena Gurasoak Berbetan-en”.



## GORKAK ere urteak daramatza mintzapraktikan, horren beharra dutenei laguntzen.

“Horrelako egitasmoak beharrezkoak dira, euskarari naturaltasuna ematen diote-eta. Ahozko euskara hobetu nahi dutenei lasai berba egiteko aukera ematen die, estresik gabe. Ekosistemari ere onura egiten dio, euskara gehiago entzuten da, berbalagunak astero elkartzen diren tabernetan, esaterako. Taldeetako giroa informala da, irteten diren gaiak batzuetan serioak izaten dira eta beste batzuetan txatxukeria hutsak; akatsekin edo akatsik gabe, kontua berba egitea da. Terapia egiten dugu, talde-terapia. Beste kuadrilla bat topatu dut eta elkartzeko ordua ailegatzeko de-nean pozarren joaten naiz, lagunengana”.



# “Poesiak esan nahi duzuna modu eder eta ezberdinago batean kontatzeko askatasuna ematen dizu”

IKER ARANBERRI • *Xabier Lete Poesia Sariaren irabazlea*



Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen Xabier Lete Nazioarteko Poesia Saria irabazi du ...eta kitto! Euskara Elkarteko lankide ohi Iker Aranberri 'Baden Verboten' izeneko poesia-bildumarekin. Epaimahaikideen berbetan, Aranberriren lanak "heldutasun poetiko harrigarria du, bai edukiarri, bai egiturari, bai irudimenari eta hizkuntzari dagokienez".

**B**aden Verboten da Iker Aranberriren poesia-bildumaren izenburua eta, azaldu digunez, gai ezberdinak landu arren, guztiek dute lotura bat. Epaimahaikideek ere hori gorai-patu dute; besteak beste, eta martxoaren 21ean eman-go diote saria, Poesiaren Munduko Egunean, 12.000 euroekin batera. Gainera, "ospe handiko" argitaletxe batek lana argitaratuko du.

## **'Baden verboten' da poesia-bildumaren izenburua. Zein da bere esanahia? Zergatik jarri diozu izenburu hori?**

Arrazoi berdinarekin bi adierazpiderengatik jarri diot izenburu hori. Alde batetik, Zarautzeko hondartzan urak zikin zeuden toki batean, Udalak bainatzea debekatuta zegoela jakinarazteko seinaleak jartzen zituen hainbat hizkuntzatan, tartean alemanieraz. Askotan paseatzen nuen handik eta alemanieraz jartzen zuenak grazia egiten zidan: Baden verboten. Ez dakit soinuarengatik edo fonetikoki bitxia zelako, baina horrela zen. "Badakit zerbait alemanez" pentsatzen nuen, baina bitxia da alemanez nekien gauza bakarra debeku agindu bat zela. Beste alde batetik, liburuak gai nagusiari erreferentzia egiten dio. Liburuan askotariko gaiak ukitzen ditut (maitasuna, heriotza, kritika soziala...), poemak

ez dabilta gai bakar baten inguruan dantzan, baina badago gai bat guztietan presente dagoena, neurri handiagoan edo txikiagoan, eta gai hori oroimina edo nostalgia da. Iraganeko sasoiei, aspaldi ezagututako jendeari, gurekin ez dauden pertsonari... Eta iruditzen zait "Baden verboten" esaldiak, debeku esaldia izanda, gure gaztaroari egiten diola erreferentzia. Gazteen izaera inkonformistari esker debekuak probokazioak izaten dira. Gaztetan, debeku bat baldin badugu, kasurik ez egitea, debeku hori apurtzea eta kontrakoa egitea izaten da joera. Gero, helduak bihurtzen garen heinean, debekuetara, arauetara eta aginduetara gero eta gehiago lerratzen gara. Beraz, gaztarotik heldu-erora doan iragaite hori islatzen du liburuak. Hau da, nola aldatzen garen, heldutan gaztaroa eta gaztaroko askatasun hori nola faltan botatzen dugun... Gaztaroko izaera inkonformista horretatik heldu arduratsu izatera nola heltzen garen egiten dio erreferentzia izenburuak. **Epaimahaikideek zure lanaren "heldutasun poetikoa" nabarmendu dute. Aspalditik idazten duzu poesia?**

Ni neu ere oso oso harriritu geratu naiz epaimahaiaren berba horiekin. Poesiara oso berandu gerturatu naiz, bai irakurle bai idazle moduan. Poesiara lehen gerturatze kontzientea ...eta kitto!-ri esker izan zen. 2007. urtea-





Iker Aranberriren poesia-bilduman naturaren ezagutza sakonetik eratorritako irudiek garrantzia handia izan dutela aipatu dute Xabier Lete Nazioarteko Poesia Sariko epaimahaikideek. BAXI UBEDA

ren inguruan bertan negoen erredaktore eta argazkilari lanetan, eta emanaldi batera bidali ninduten argazkiak egitera. Ez nekien zein emanaldi zen eta kasualitatez musikaturako poemen emanaldia zen, bizitzako lehenengo niretzat. Portalean sartu eta aretoan bi pertsona bakarrik ikusi nituen. Ni nintzen hirugarrena, lanera joan nintzelako. Lana amaitu nuenean emanaldiak aurrera jarraitu zuen, baina hainbeste gustatu zitzaidan ikusten eta bizitzen ari nintzena, emanaldi guztia ikusten gelditu nintzela. Poesiaren mundutik emanaldi horrek hunkitu egin ninduen lehendabizi. Gotzon Barandiaranen ‘Arrakalak’ liburuan oinarritutako emanaldia zen. Gotzonek ‘Katamalo’ liburua idatzi zuen ondoren, Gorka Urbizurekin bira egin zuen eta egundoko eztanda izan zen kulturalki Euskal Herrian. Dena dela, agian inkontzienteki lehenago gerturatu nintzen poesiara, Lorelei taldearen oso zalea izan naizelako. 1997an ‘Bada hiri gorri bat’ diskoa argitaratu zuten eta letrei erreparatzen hasi nintzen, irakurtzen, eta gerora jakin nuen abestiak Asier Serranok idatzitako poema-liburu batean oinarrituta zeudela. Baliteke hori izatea poesiarekin izan nuen lehen harremana. Bestetik, azken urte hauetan

## “Betidanik eduki dut liburu bat idazteko ilusioa eta gutxien espero nuena zen poesia liburu argitaratzea”

poesia irakurri izan dut, baina idazteari dagokionez, liburu honetarako idatzitako lehen poemak 2020an idatzi nituen. Pandemia sasoiaren eman nion bultzada idazteari eta harrezkero nabil idazten.

**Asier Serrano aipatu duzularik, bera eta zu zarete Xabier Lete Poesia sarien palmaresean agertzen diren bi eibartarrak. Poesia harrobia dugu herrian?**

Lehiaketa honek 14 urteko ibilbidea du, baina bi urtean behin antolatzen da, eta Asierrek hirugarren edizioan irabazi zuen. Palmaresa ikusita, badut iruzurtiaren sindrome antzeko bat. Hasiberria naiz eta nire izena idazle handi horien artean ikusteak inpresioa ematen

dit. Harrobiari dagokionez, ez dakit, uste dut herri guztietan daudela poeta galdua eta ateratzea da falta dena. Nire kasuan orain dela lau urte hasi nintzen poesia idazten, baina ingurukoek orain jakin dute poesia idazten dudala. Ez da hasieratik denei kontatu didian zerbait eta denentzako sorpresa izan da.

### **Zergatik ba horrela?**

Arrazoi praktiko batengatik: lotsa ematen zidalako. Irakurtzea gauza bat da, baina idaztea... Lanera trenez joaten naiz eta irakurtzen noa, eta berdin zait poesia irakurtzen ari naizela ikustea; baina sortzaile moduan zer egiten dudan galdetzerakoan poesia egiten dudala erantzuteak, ba tira, erreparoa ematen zidan, orain arte ez dudalako ezer argitaratu. Lotsa edo errespetu moduko zerbait ematen zidan poesia egiten nuela esateak.

**Egia da gizartea, oro har, prosara gehiago dagoela ohituta, bai irakurtzeko bai idazteko orduan. Poesia idazteko orduan nola egiten duzu? Metrika eta errima batzuek jarraitzen dituzu? Libre egiten duzu?**

Ez dut metrikarik edo errimarik jarraitzen. Jendeak badu irudi hori, egitura zurrunik erabili behar direla, errima zehatzak... Baina poesiaren beste aldaera bat da dena libre egitea. Nahi duzun luzerarekin, erregistroarekin, errimekin edo errima gabe. Liburuan errima bat edo beste sartu dut, baina orokorrean errimarik gabeko poesiak dira. Prosa irakurtzera eta idaztera ohituago gaude, eta poesia beti izan da bazterrean gelditu den zerbait. Hain zuzen ere Asier Serranok poesiaren bazterreko izaera hori aldarrikatu izan du. Egunen batean mainstream bilakatzea lortzen badu, bere funtsa edo berezko izaera hori galduko lukeela aipatu izan du.

**Epaimahaia zure idazkera aberatsa ere nabarmendu du. Poesian bereziki hizkuntzaren edertasuna eta estetikak garrantzia berezia du?**

Poesiak esan nahi duzuna modu eder eta ezberdinago batean kontatzeko askatasuna ematen dizu. Eta poesiaren aberastasuna hau da, interpretatzeko orduan irakurleari ematen diozun boterea. Intentzio batekin idazten duzu, baina irakurleari askatasuna ematen diozu. Nik buruan badut amaiera bat eta badakit zein



bide egin dudana poema horren garapenean, baina pertsona bati poema berdina eman eta A puntutik B puntura iritsi ordez, agian C puntura iritsiko da, eta beste pertsona batek H puntura egingo du bidaia. Are gehiago, pertsona berdinari poema berdina bere bizitzaren sasoi ezberdinetan ematen badiozu, helmuga ezberdinak izango ditu bizi duen momentuaren edo aldartearen arabera. Poesiak joko hori ematen dizu: Idazleak abiapuntu bat ematen du eta ea irakurlea nora iristen den. Horretarako, gauzak ezin dira zehaztasun handiarekin idatzi, baizik eta ez oso modu agerikoan, erdi ezkutuan edo beste hitz batzuekin.

**Saria irabazteagatik liburua argitaratu ahal izango duzu. Nola sentiarazten zaitu horrek?**

Ametza bete dudala iruditzen zait. Betidanik eduki dut liburu bat idazteko ilusioa eta gutxien espero nuena zen poesia liburua argitaratzea. Bestetik, ez nuen uste hau esango nuenik, baina liburua argitaratzeko eta jendearen eskuetara iristeko desiratzen nago. Hasieran erreparoa ematen zidan jendeak irakurtzea, poema hauetan ireki egin naizelako eta nolabait lotsa ematen zidalako, baina orain jendeak irakurtzeko eta bere iritzia jasotzeko gogotsu nago.

72.36€  
IKASTURTE OSOA

# IKASTARO BERRIAK!!!



**ALEMANA B1  
SEMIPRESENTZIALA**

Asteartea 18:20-20:30



**EUSKARA A1**

Astearte-Osteguna  
15:55-18:05



**INGELESA B2.2  
SEMIPRESENTZIALA**

Asteartea 18:20-20:30

**MATRIKULA ZABALIK  
URRIAREN 7RA ARTE!**



943 89 92 75



eoieibarheo@gmail.com

# “Eibarren dena dugu alde asmoak errealitate egiteko”

JAVI AGUADO • Zuzendari teknikoa



Eibar Rugbyko emakumezkoen lehen taldeak azken denboraldian galdutako Ohorezko Maila berreskuratzeko asmoarekin ekingo dio denboraldi berriari. Cristina Guntinen aginduetara bederatz denboraldi egin eta gero, Ohorezko B Maila berrian Getxotik datorren Javi Aguado eta Bera Beratik heltzen den Jokin Gorrotxategi izango ditu prestatzaile hurrengo erronkari heltzeko sasoi berrian.

**J**avi Aguadok ondo daki aurrean izango dituen zailtasunei nondik heldu. Hiru hilabete besterik ez dira Getxoko emakumezkoen taldearekin Ohorezko Mailara igotzea lortu zuela, bertan egindako lau urteko lanari ginga ezarritz. Eta itxaropenetsu ekiten dio Eibarren izango duen erronkari.

## Zelako taldea aurkitu duzue hona etortzerakoan?

Talde berritua eta oso gaztea, aldi berean. Pixka bat erreta dagoena ere bai. Horrek behartu gaitu guztiz aldatzera sistemak; dena dela, jokalariek ikasteko gogoz daudela erakutsi digute.



Javi Aguadok (eskuman), Aitor Etxebarria lagun zuela, Getxorekin Ohorezko Mailara igotzea lortu du azken denboraldian.

## Erreta diozunean, zergatik izan daiteke?

Aurreko entrenatzaileak bederatz urte eman zituen hemen, eta hori asko da; azkenerako, jendeari ez zaizkio mezuak behar den bezala heltzen, denborarekin galtzen joaten delako lotura hori. Horregatik, beharrezkoa da beste urrats bat egitea, taldea berrindartzea. Aldaketa asko eskatzen du horrek, eta bide horretatik goaz.

## Azken denboraldiko taldearekin parekatuz, asko aldatu da ekipoa?

Bai, zentzu guztietan gainera. Guk ez dugu fitxaketa egin, eta taldeko ia guztiak Euskal Ligatik datoz. Horren aldeko apostua da gurea, ikusita gainera erakutsi diguten ikasteko gogoia. Jokalari gazteen alde egin dugu guztiz, azken unean fitxaketa bat edo beste izan daitekeen arren. Taldea asko gaztetu da eta gure proposamena denboraldiari hemengo jokalariekin ekitea da.

## Zein da denboraldiko helburua? Berrito igotzea akaso?

Jakina. Helburu hori ez dugu aldatuko. Ahal bada, gustatuko litzaiguke lehenengo harria ipintzea bide horretan, jokoan ikasteari mailaz igotzearen ginga jarritz. Gainera, jokalari hauek badute kalitatea.

## Zeintzuk dira taldeak dituen indarguneak eta, aldi berean, izan ditzakeen ahulguneak?

Indarguneen artean, jokalariek erakusten duten gogoia azpimarratuko nuke, pasada bat, esponjak dirudite gure aginduak asimilatze prozesuan; beti daude prest entrenatzeko, galderak egiteko... Kontrara, esperientzia falta nabarmenduko nuke. Horretarako balioko digu hasitako Erreginaren Kopak, mekanismoak hartzen joateko. Baina indartsu gaudela erakutsi dugu.

## Zelako sentsazioekin geratu zintaten Burgosko Pingüinas taldekoen aurkako partiduaren amaieran?

Lehenengo partidu horrek sentsazio onak laga zizkigun. Proposatutako joko-sistemak nahiko ondo fun-



BIDEOA



Javi Aguado joko-sistemari buruzko azalpenak ematen Eibar Rugby Taldeko jokalariei martitzenean egindako lan saioan. YANIRE SAGREDO

tzionatu zuen eta, ondo egindako lanaren ondorioz, taldea nagusitu zen.

**Asteburu honetan bigarren erroka izango duzue, Unben berriro, baina Ohorezko Mailako Getxoren aurka. Horrek gehiago eskatuko dizue, ez?**

Jakina, talde igo berria izanda ere, fitxaketa indartsuekin baitator. Gure benetako borroka, dena dela, Liga hastearekin izango da, eta Erreginaren Kopa hau guretzat denboraldiaurrea da, oso proposa ikasten joateko. Emaitza ez da aurreko asteburukoa izango seguruenik, baina partidua jokatu beharra dago, ikusiko dugu.

**Eta hurrengoa CRAT Rialtaren aurka, hori kanpoan...**

Hori ere jokatu beharrekoa; zein emaitzarekin, batek daki! Gauza asko gertatu daitezke, txartel gorriak izan daitezke... Gure bideari jarraitu behar diogu, gure joko-sisteman sakonduz.

**Mailaz igotzeko aukerak zenbatekoak dira?**

%85ekoak, esaterako. Ikusi behar beste taldeak zelan dauden, baina Erreginaren Kopa hasierakoak ikusita, itxaropentsu nago gure lanarekin.

**Noiz izango da taldea puntu-puntu? Denboraldi amaierarako?**

Ordurako prestatu beharko gara, batez ere. Baina gure lehenengoko asmoa zuzenean igotzekoa da; horrela ezin bada, repeskan ahaleginduko ginateke. Apunte bat: Ohorezko Mailan orain plaza bat geratu da libre, Bartzelonak bere taldea erretiratu duelako. Baina ez dugu

hori hartzea nahi. Esku artean dugun taldea oso gaztea delako, eta hobe delako Ohorezko Mailan gozatzeko esperientzia gehiago biltzea. Olympicok, Sanboianak... ez dakit zeinek hartuko duen, baina ez da gure bidea.

**Zer esanahi du Eibar Rugbyn talde nagusia emakumezkoena izatea?**

Getxon ere horrelako bilakaera bat bizi izan dut azken urteotan, eta bertako gizonzkoen zein emakumezkoen taldeak nahiko paretsu dabilta azken aldian. Eibar toki ezin aproposagoa da mailaz igotzeko: ez bakarrik duen taldearengatik, baita maila pertsonalean ere, zuzendaritza oso gertu dugulako. Klubeko erreferente izanda, hemengo neskek zorte handia dute.

**Zelako baloreak transmititzen ditu errugbiak?**

Errespetua dago, beste guztiaren gainetik. Zelaian gogor borrokatu arren, hirugarren denbora bizi den kiroltasun seinalea izaten da. Errespetu hori, gainera, zelaitik kanpo ere arnasten da: harmailan zaletuek ez dute irainik eta halakorik ahotan, epaileen lana ere modu onean hartzen da...

**Zenbat denboraldi espero duzu hemen egitea?**

Hori Iñaki presidenteari galdetu beharko zai! Proiektu baten zikloa hiruzpalau urtekoa aurreikusten dut. Hortik aurrera, gure mezuek indarra galtzen joateko arriskua baitute. Oinarri bat sortzea gustatuko litzaidake niri, joko-sistema bat: plakaterakoan, jokaterakoan... estilo bati jarraitu.

## Joel Eransusek jantzi zuen Eibarren jokaturako squash-eko Euskadiko txapela

Aurreko asteburuan Ipurua kiroldegian jokaturako Euskadiko Txapelketa Absolutoan, CD Amaya taldeko Joel Eransusek Sanjuanetan Eibar Hiria Torneoan lortutako garaipena berretsi zuen, erakutsiz ondo datorkiola gure herriko instalazioetan jokatzeari. Deporrek menduaren barruan anto-



latutako lehiaketan 28 kirolarik hartu zuten parte eta, ohikoa denez, Alberto Ferreiro izan zen Klub Deportiboko ordezkari onena, azkenean laugarren postuan geratzeko. Eransus txapeldunak Adrian Beloki

taldekideari irabazi zion finalean, eta Ferreirok gerra handia eman zion Benedikta Squash Clubeko Fran Serranori hirugarren postuan geratzeko borrokan (10-12, 10-12 eta 11-13).



## Casinoko billar kluba 2. Maila Nazionalean

Casino Artista Eibarres-eko billar klubak 2. Maila Nazionalean hiru bandetara jokatzeko taldea ateratu du. Eibarko taldeak Santander, Alcobendas, Valladolid eta Madrilen jokatu beharko ditu kanpoko partidak. Asteburu honetan hasiko da liga hori eta Casinoko ordezkariak Alcobendasen debutatuko dute maila horretan, horraino heltzen den Euskadiko lehen kluba bihurtuz. Ricardo Robles, Jaime Chaos, Jon Alberdi eta Jorgek osatutako laukoteak ordezkaturiko du kluba lehenengo jardunaldi horretan: "Erronka dugu aurrean, baina disgustu bat baino gehiago emateko asmoz goaz Alcobendasera", diote laurak.

## Eibartarrak bikain Santanderreko Triatloian

Guztien artean Pello Osoro nabarmendu zen berriro ere eta, aurreko asteburuan Bilbon irabazitako XIII. Triathloia ondoren, handik zortzira Santanderreko Triatloia ere bereganatu baitzuen. Uda aurretik izandako istripuaren ondorengo errekupeazio ezinhobea izan duela erakutsiz, Peñota Dental Alusigma taldeko atletak erakutsi du Fromista Triatloian lortutako podiuma eta Alpe D'Huez edo Embrunman-eko probetan finisher izatea ez direla kasualitatea. 3:39:25eko denbora egin zuen, Jaime Izquierdo bigarrenari 4 minutu eta 38 segundoko aldea kenduta, eta Gonzalo Garvey hirugarrenari 7'20". Proba berean Txomin Osoro, irabazlearen anaia, zazpigarren izan zen (3:59:10). Eta, Ainhoa Murua zara zuzen irabazitako emakumezkoen proban, Aitziber Urkiola eibartarra podiumaren ateetan geratu zen, laugarren postuan. Peñota Dental taldeko ordezkariak 4:37:06ko denbora markatu zuen.



Santanderreko distantzia erdiko triatloi horretan hartu zuen parte, baita JAZ Eibar Triatloiko Aitor Fernandezek ere, 82. postuan helmugaratzeko. Ordezkari zabalagoa izan zuen gure herriko taldeak Zumaiako esprint distantziako triatloian, guztira zortzi atletarekin. Emakumezkoetan, Cristina Ruiz 30.a izan zen (laugarren V1 mailan), Nerea Ziaran 46. postuan sailkatu zen eta Idoia Uruñelak ezin izan zuen proba amaitu. Gizonezkoetan, Ugaitz Gartzia 39.a izan zen (seigarrena jubenetan) eta atzetik sailkatu ziren Roberto Gartzia (114), Kepa Marquez (166), Javier Muñoz (174) eta Alberto Agirre (180. postuan, zortzigarren V3 mailan).

## Eibar Igerixaneko Paula Calvo onena izan zen Flysch Beltzan

Gure herriko klubeko ordezkariak beste garaipen bat lortu zuen, oraingoan igerilekutik kanpo, Mutrikun hasi eta Deban amaitu zen Flysch Beltza Trabesiaren hamargarren edizioan. Uztailean jokatu beharreko eta eguraldiarengatik atzeratutako proba azkenean jokatu ahal izan zen aurreko domekan, oraingoan eguraldia lagun izan zuen jardunaldian. Proban 150 igerilari baino gehiago izan zen parte hartzen, guztiak ere Mutrikuko kaiatik irten eta Debako hondartzara heltzeko asmoarekin. Hiru kilometroko distantzia hori azkarren egiten Mikel Iriondo ondarrutarra izan zen (37 minutu eta 10 segundo); berarekin osatu zuten podiuma Astigarra-gako Luis Goñik (38:22) eta Unai Sagarzazu usurbildarrak (39:11). Eibar Igerixaneko Asier Gomez ermuarra bosgarren sailkatu zen (39:40) eta gertu izan zuen Paula



Calvo taldekidea, bederatzigarren guztien artean. Elgoibartarrak 40 minutu eta 12 segundoko denbora egin zuen, irabazlearengandik hiru minutura bakarrik; eta bigarren emakumezkoari, Kortezubiko Garazi Bengoetxeari lau minutu atera zizkion, eta seitik gora podiuma osatu zuen Logroñoeko Almudena Prior igerilariari.



Asier Gomez eta Paula Calvo.

## Gipuzkoako xake txapelketak hartuko ditu Eibarrek bihartik hasita



Errebal Plaza izango da kokagune.

Eibarko Klub Deportiboaren mendeurrenoko ekintzen barruan, partida azkarren Gipuzkoako bakar-kako eta taldekako txapelketak eta probintziako Txapelketa Nagusia jokatu dira gurean hurrengo asteburuetan. Gipuzkoako Xake Federazioarekin elkarlanean antolatutako txapelketa horiek zapatu honetan hasiko dira. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Errebal Plazako A eta B geletan izango dira partida horiek; jokalariek 3 minutu eta egindako jokaldi bakoitzeko 2 segundo gehigarri izango dituzte.

Hurrengo zapatuan, urriaren 5ean, taldekako partida azkarren txanda izango da, urtero Sanjuane-

tan Untzagan jokatzeko erako txapelketa, lau jokalariz osatutako taldeekin; hori ere Errebaleko A eta B geletan izango da. Asteburu bietako txapelketetan, gainera, eta berritasun bezala, horko puntuak FIDE nazioarteko xake federazioaren ELO sailkapenerako balioko dute.

Urriaren 12an Gipuzkoako Txapelketa Nagusiari ekingo zaio. Lehenengoko txanda hori Errebalean izango da, eta ondorengoak (azaroaren 23ra arte luzatuko direnak) Deporrek instalazioek hartuko dituzte. Txapelketa nagusiarekin batera, 2. eta 3. mailetakook ere jokatu dira.



TOMAS VOUILLOZ

## Ez ahaztu garbigailua jarri duzula

Hil baino lehenago, azken segundoan, bizitza osoa begien aurretik pasatzen omen da. Ea hori nork esaten duen, nola jakin daitekeen eta abarreko hutsune logikoak alde batera utzita, nik galdetzen dudana da ea bizitzako une guzti-guztiak pasatzen diren, edo soilik laburpen bat, EITB-ko Kirolak-en bezala.

Sinesgarriagoa iruditzen zait bigarren aukera. Gure garunaren funtzionamendua optimizazioan oinarritzen delako eta dena, alegia, den-dena gogoratu behar izatekotan, ez dago inon muga jartzerik. Hori da J.L. Borgesen Funeseri gertatzen zaiona: hain da miresgarria bere memoria, ez diola ezta xehetasun batek ihes egiten, eta hainbeste informazioren behean ezin dela bizi. Geldi dago bera, itota, hainbeste argiren aurrean itsututa, eta besteengatik ahaztuta.

Har dezagun ontzat orduan bigarren aukera eta goazen gure bizitzak kimatzera. Egin ariketa hau eta konta iezaiozu zure buruari laburrean zure bizitza. Hainbat mugarri agertuko dira gaur arte egin duzun bidearen mapa zirriborratzen (nonbaitera iritsi beharko bazinen bezala). Niri bezala gertatuz gero, mota guztietako errito, arrakasta, porrot eta gertakarik erakutsiko dizute nondik doan bidezidorra.

Hara non, istorio ulergarri bat kontatzeko aitzakiarekin, ia nire bizitza osoa ezabatu dut. Nora joan dira jarri ditudan garbigailuak, eskegi dudana arropa dena, elkarrizketa zailak, goiari eutsi behar izan diodan une guztiak? Gorroto dut garbigailua jartzea. Ez dira atseginak elkarrizketa zailak, jaso eta eman behar diren bronkak... Zerbait lortu izanaren arrakastak azkar itzaltzen du bertara iristerainoko esfortzua.

Hil arte ez dut jakingo nola izango den azkeneko flash hori, baina bizi naizen bitartean, neure buruari gogorarazi behar diot ez ahazteko maite ditudan eta neure burua zaintzen eman dudana denbora gehiengoa dela. Ikusten naiz, espero hemendik urte askotara, nire azken arnasan, bizitza osoan jarri ditudan garbigailu guztiak eskegitzen, bata bestearen atzetik. Hori baldin bada bizitza habitagarriago bat bizitzeko prezioa, prest nago ordaintzeko.

**“Ikusten naiz, espero hemendik urte askotara, nire azken arnasan, bizitza osoan jarri ditudan garbigailu guztiak eskegitzen, bata bestearen atzetik”**





eskolara buelta!

elite

ISASI kalea, 29

Eskola-materiala,  
papertegia, motxilak,  
idazmahaiak, aukiak...

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK  
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

**PUBLI RESA**  
objeto publicitario

merchandising  
serigrafía  
lanerako erropa

www.publiresa.com  
publiresa@publiresa.com  
943 701 497 / 615 799 419  
Armagin, 3-5 behe

**FUNEUSKADI**  
Grupua: Auzoa

**FUNERARIA MUGICA**  
Funerakadi

TANATORIO EIBAR  
TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27  
Elgoibar: Xivilon, 1/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)  
Eibarko belegoa: Eldebarrieta, 20  
Elgoibarko belegoa: Marqués de Valdepinna, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

leku berri bat Ego-Gain, 2  
943 558728

**TOPA-LEKU**  
laberna

egunero elkarrekin egoteko

**2024 SAGARDOA EUSKARAZ GOZATU**

**eta kitto!**  
euskara elkarte

**Urriak 5 zapatua**

**Untzaga plazan**  
12:00 - 14:30  
19:00 etatik - amaitu arte

SAGARDOAK: BEREZIARTUA, Capa, R. ZABALA, SAIZAR, OYARBIDE LABALEGI

ANTOLATZAILEA: eta kitto!

LAGUNTZAILEA: Xabier Zabala



# Emakumeen ahalduntzerako hamaika modu

Andretxeak udazken-neguan eskainiko duen programazioa aurkeztu dute Jon Iraola alkateak eta Sonia Archeli Berdintasunaren zinegotziak. Horrela, Isasi kalean dagoen emakumeen etxea “estrategia eta aliantza feministak sortzeko eta indartzeko gune” bilakatuko dela nabarmendu dute. Eibarko Jabetze Eskolak eskainiko dituen ikastaroekin batera, erakusketak, literatura-saioak, jabetzeko taldeak eta beste hainbat jarduera egingo dira datozen asteetan.

Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



**U**rritik aurrera Andretxeak eskainiko duen programazioa “berdintasunaren eta tratuen alde lan egiteko helburuari” jarraituta prestatu dutela nabarmendu dute Udalaren Berdintasun Zerbitzutik. Sonia Archeli Berdintasunaren zinegotziaren berbetan, “abendura bitartean, tailer eta formakuntza ezberdinak izango ditugu, hiru erakusketa, literatura saioak, eta emakumeak ahalduntzeko guneak, besteak beste”.

Jabetze Eskolak eskainiko dituen ikastaro eta tailerretan izena emateko epea eguaztenean itxi zuten, eta aurten ere oso harrera ona izan dute: izen-emateko epea oraindik ixtear zegoela, 250 aurrematrikula baino gehiago jaso dituzte arduradunek. Archeliren berbetan, “tailerrak tematika ezberdinetakoak izango dira: pole dance, autodefentsa feminista, sukaldaritza... denetarik ikasteko aukera dago”. Horrekin batera, ikastaro hauen helburua adin eta jatorri guztietako emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea bultzatzea ere bada, hau da, “emakume hauen arteko harremanak lantzea”.

Kurtso honetako lehen erakusketa martitzenean zabalduko dute, 18:00etan: *Luminiszentek: 63 historia emakumeen aurkako indarkeria ikusezinari buruz* izenburuko erakusketa horretan diskurtso nagusietan lekurik ez duten emakumeen bizitza-historien irudiak bildu dituzte Igone Mariezkurrena Fernandezek eta Irantzu Pastor Ordokik, KCD Garapenerako Lankidetzarako Gobernu Kanpoko Erakundearen laguntzarekin. Biak egongo dira inaugurazio egunean, beraien lana jendeari aurkezteko. Azaroaren 29ra arte egongo da Andretxean ikusgai, eta itxi aurretik, nahi dutenentzat bisita gidatua egingo dute azaroaren 28an,

18:00etan. Abenduaren 2tik 15era, berriz, *La búsqueda II*, Cristina Chiquin Rodriguezek Entreamigos-Lagun Artean GKE-aren laguntzarekin egindako erakusketa zabalduko dute. Eta, urteko azken egunetan, Gipuzkoako SOS Arrazakeria erakundeak 2022ko martxoaz geroztik gauzaten ari den *Allied Employers* proiektu pilotuaren prozesutik sortu den *Ispilua* erakusketa ikusi ahaliko da.

### Afrikako emakumeak protagonista izango dituzten literatura saioak Maistrak liburutegian

Orain arte aipatutakoekin batera, aurkeztu berri duten programazioaren baitan antolatutako literatura saioak ere egingo dira: “Kurtso honetako saioak Afrikako gaien ingurukoak izango dira, eta liburu bakoitzean azaltzen diren gaiak lantzeko aukera egongo da”. Ainhoa Aldazabal Gallasteguik dinamizatutako saio hauek hileroko egiten dira, Andretxean dagoen *Maistrak* liburutegian. Hain zuzen ere, Andretxeko liburutegia genero eta feminismoetan espezializatuta dago, eta kontsulta, aholkularitza espezializatu eta mailegu zerbitzuak eskaintzen ditu, “baita irakurketa errezarako saioak eta baliabideak ere”.

Arduradunek azaldu digutenez, hausnarketara eta eztabaidara bultzatzen duten saio irekiak ere antolatutak dituzte. Horrela, urriaren 9an, *Zaintza sistemaren erregimenaren auzia ekofeministotik* izenburuko solasaldia egingo da, euskaraz, 18:00etan hasita. Eta urriaren 21ean, 18:00etan, *No nos enfermamos, nos enfermamos: coloquio sobre Las herederas y la salud mental* izeneko hitzaldi-solasaldia.

Eta, orain arte aipatutakoez gain, emakumeak ahalduzko beste gune batzuk badaudela azaldu digu Archelik: “Emakumeak jabetzeko talde hauek itxiak dira, goxoak, emozionalki gauzak lantzeko aukera ematen dutenak. Psikologo bi aritzen dira dinamizatzaileran”. Talde hauetan autoestimua, afektibitatea eta horrelakoekin lotura duten beste gai batzuk lantzen dituzte, “modu intimoago batean”.

Eskaintza eta zerbitzu guztiei buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, Andretxearen web-orrira ([www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea](http://www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea)) jo dezakezue, zuzenean Andretxeara joan (Isasi, 11), edo 943 54 39 38 / 688 85 34 40 telefonoetara deitu.



### “Luminiszentek” izenburuko erakusketa martitzenean inauguratuko da eta egileak etorriko dira azalpenak ematera



Shirley Red Star, haurra zela bere komunitatetik kanporatu zuten Lakota da *Luminiszentek* erakusketako protagonistetako bat.



## Arrate Kultur Elkarteko bazkideen lanak urriaren 6ra arte egongo dira ikusgai

Aurreko barixakuaz geroztik, Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa kolektiboa ikusi daiteke Topalekuan. Erakusketak orotariko artelanak biltzen ditu, eta parte hartu duten artistak honako hauek dira: Maite Arriaga, Arrate Osoro, Mikel Estandia, Vicente Iriondo, Bakarne Elejalde, Santi Entrena, Eli Eguren, Esteban oroz, Mamen Piriz, Karla Acosta, Mireia Agirrebeña, Jesus Belaustegi, Carmen Mostaza, Arrate Plazaola, Jose Luis Irigoien eta Esther Fernandez de Maruri. Urriaren 6ra arte bisitatu daiteke, astegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

## Euskal kanta tradizionalak ikasteko saio irekiak

Bestalde, euskal kantuak gustoko dituztenentzat proposamena daukate: "Taldetxo bat osatzen bada, euskal kanta tradizionalen letrak eta doinuak ondo ikasteko saio batzuk antolatu nahi genituzke. Helburua ez da abesbatza, otxotea, edo oso ondo abesten duen talde bat osatzea, baizik eta bazkaloste batean, txango batean, mendi punta batean, lagunekin txikiteoan gabiltzala, edo dutxaren ur azpian kantuan hasten garenean, kantu-paperik gabe abestiak osorik kantatzeko gai izatea. Batzuek ahots ona izango dute eta beste batzuek ez. Musikarekiko kultura ere ez dugu denok berdina, baina gure kantek merezi dute galbidetik atera eta aukera berriak eskaintzea".

Asmoa euskal kantak lantzea da, eta animatuz gero, astelohenean, 19:00etan, elkartearen lokaletara joateko deia egin dute, "saioak zein egunetan eta zer ordutan egingo ditugun erabakitzeko".



## Bertso-paper Lehiaketarako epea gaur zabalduko da

Urriaren 30era arte luzatuko da eta, beraz, hilabateko epea izango dute aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketara aurkeztu nahi dutenek. Urtero moduan maila bi izango ditu lehiaketak: 16 urtetik beherako Eibarko ikasleena bata, eta Euskal Herri osoko 16 urtetik gorakoena bestea. Gazteenek bertso bat edo bi kopla aurkeztuko dituzte eta helduek, berriz, lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Gaia eta doinuak libreak izango dira eta lanen hiru kopia entregatuko edo bidaliko dira ...eta kitto!-ra (Urkizu 11 solairuartea). Sarietarako dagokienez, gazteenek trofeoak eta liburuak eskuratu dituzte eta helduen artean, berriz, 300 euroko saria irabaziko du irabazleak eta 250 eurokoa bigarrenak. Irabazleek azaroaren 22an Coliseo antzokian egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak.



## Akuarelak margotzen hasi nahi dutenentzat tailerra

Akuarelarekin margotzen hasi nahi dutenentzat tailerra antolatu dute Ipuruako Merkatu Plazan, urriaren 12rako. Santi Entrenak emango du, 11:00etatik 14:00etara, eta edozeinek hartu ahaliko du parte (10 urtetik beherakoak nagusi batekin). Ez da aurretik izena eman behar, eta doan izango da.



## Eskrima historikoa erakusteko saioa hartuko du Untzagak

Armagintzaren Museoan ikusgai dagoen “Museoko ertz zorrotzak” erakusketaren harira, eskrima historikoa bertatik bertara ezagutzeko aukera ederra izango dugu bihar, 12:00etatik aurrera Untzagan (euria eginez gero, Errebalen izango da). Gasteizko CSE (Commilitium Sacrae Ensis) Eskrima Klubeko eta Donostiako Ignota Arma Aretoko kideek egingo dute erakustaldia, Museoan ikus daitezkeen arma zuri, sable eta baionetan antzekoak diren erreplikak erabilia. Gainera, sasoi bakoitzari dagozkion arropak jantzita arituko dira. Horrekin batera, Iker Alejo eta Francisco Peña Castresana erakusketako komisarioek arma horien erabilera zehatza erakutsi eta azalduko dute.



## Zuzeneko musikarekin lagundutako bertsoak

Bertso-saio musikatua hartuko du Errebal Plazak gaur, 22:00etatik aurrera. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi eta Josune Aramendi arituko dira bertsoan, Garikoitz Otamendi eta Ixak Arruti musikoek lagunduta, eta Aimar Karrika izango da gai-jartzailea. Sarrera doan izango da.



## Herriko musikoak Walterren omenez arituko dira bihar

Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak antolatuta, bihar omenaldia egingo zaio Walter Tuzzeo Sizilian jaiotako soinu-teknikari eta musikariari, 18:30ean hasiko den ekitaldian. 2013az geroztik Legarreko grabazio-estudioan aritu zen Tuzzeorekin harremana izan duten hainbat eta hainbat musikari arituko dira biharko saio berezian, “maisua handia gogoratzeko”. Parte hartuko dutenen zerrenda luzea da benetan: Ustekabe, Mursego, Trio Medianoche, Markos Untzeta, Rumbo Paraiso, Judash, Os Galaicos, Azkaiter Pelox, Mirari ta Aintzane, Urkari, Kokein, Beato, Puro Chile, North School, Melissa&The Jacks, Miren Narbaiza, We are apes, hello!, David Karba, Gorka Martinez de Lagos, Eibarko Koro Gaztea, The Vartools, Aroa Rojas, Eirband... eta beste hainbat gonbidatu.

## Mikologia Jardunaldiak urriaren 5etik 7ra egingo dira



Klub Deportiboko Mendi batzordeak urtero antolatzen dituen Mikologia Jardunaldiak urriko lehen asteburuan egingo dira. Zapatu goizean haurren mendira irteera egingo dute, bildutako perretxikoak Errebal Plazan sailkatzeko gero. Aurten izaera irekiagoa eman nahi izan diote saio horri, eta Aranzadiko adituak edozein galdera erantzun edo zalantza argitzeko prest egingo dira. Domekan erakusketa eta dastaketa egingo dira, eta astelehenean hitzaldia, Aranzadikoen eskutik.



**AURKITU 8  
EZBERDINTASUNAK**



**AURKITU 9  
EZBERDINTASUNAK**



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

	5	1	2				
		7					
			8			2	3
6	7			3	2		8
	9					4	
8		5		9		3	7
7	6				8		
						9	
					6	8	5

E	R	R	A	Z	A	G	O	A
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R
R	A	B	O	R	A	R	A	R

soluzioa

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

8		1				5	6
	2		5				9
3						7	2
		4	9		1		8
				3			
6			4		5	3	
9	8						6
	6			7		3	
	1	7				2	9

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

soluzioa

8		1				5	6
	2		5				9
3						7	2
		4	9		1		8
				3			
6			4		5	3	
9	8						6
	6			7		3	
	1	7				2	9

# Irailak 27 / Urriak 3

## BARIXAKUA 27

### BERTSO-SAIO MUSIKATUA

**22:00** Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi eta Josune Aramendi bertsolariarikin. Gai-jartzailea: Aimar Karrika. Musikariak: Garikoitz Otamendi eta Ixak Arruti. Sarrera doan. Errebal Plaza.

## ZAPATUA 28

### IPURUAKO JAIAK

**09:00** Mendi martxa (Argatxan hasi eta amaitu). Lasterketa ostean, salda eta txorizoa.  
**11:00** Txupinazoa, Argatxan. Ondoren, herri-kirolak, Ipur sagardotegiko plazatxoan.  
**13:30** Trikipoteoa, auzoan.  
**15:00** Auzo-bazkaria, Mogel ikastetxean. Bazkalostean, tonbola eta jolasak.  
**19:00** Kontzertuak: Erramunak, Makis 37 eta Mugi Panderoa.  
**01:00** DJ Festa. Ipurua..



### ERAKUSTALDIA

**12:00** Eskrima historikoaren erakustaldia, Gasteizko CSE (Commilitium Sacrae Ensis) Esgrima Klubeko eta Donostiako Ignota Arma Aretoko kideen eskutik. Untzaga (euria egiten badu, Errebal Plazan).

**17:00** Bisita gidatua "Museoko ertz zorrotzak" erakusketara. Armagintzaren Museoa.



### OMENALDI KONTZERTUAK

**18:30/22:30** Walter Tuzzeori omenaldia. Parte-hartzaileak: Ustekabe, Trio Medianoche, Puro Chile, Judas Argarate, Eirband, Melissa&The Jacks, We are apes, hello! David Karba, The Varttols, Eibarko Koro Gaztea, Azkaiter Pelox, Urkari, Mursego, Rumbo Paraiso, Mirari ta Aintzane... Untzaga.

### AGINAGAKO JAIAK

**18:00** Kanpai-iraulketa, San Miguel bezpera ospatzeko. Aginaga.

## DOMEKA 29

### BIZIKLETA EGUNA

**09:30** Mountain bike eta zikloturista martxen irteera, Untzagatik.  
**10:30** Izen-emateak.  
**11:00** Eibarko bidegorria ezagutuz ibilbidea, Untzagatik abiatuta.  
**11:30** Zirkuitoa, herri barruan, 8-10 urte bitartekoentzat (bi buelta). Zirkuitoa 11-12 urtekoentzat (hiru buelta).  
**12:00** Gaztetxoentzako ibilbidea, eta zikloturistak ailegatzeko. Untzaga.

### IPURUAKO JAIAK

**10:30** Toka eta igel txapelketa (Ipuruako jubiletzearen eskutik, eliza parean).  
**11:30** Skalextrik zirkuituak eta txokolate-jana (Jazinto Olabe plazan).  
**12:00** Auzoko hildakoena aldeko meza.  
**12:30** Kaxaren dantza erakustaldia (J. Olabe).  
**13:30** Bermutada eta DJ Eustah (Jazinto Olabe).

### AGINAGAKO JAIAK

**11:00** Meza Nagusia, San Andres Parrokiako Abesbatzarekin. Ondoren, Usartza Txistulari Taldearen emanaldia.  
**12:00** Hamarretakoa eta umeendako jolasak.  
**14:30** Paella-jan herrikoia.  
**17:00** Erromeria, Joselu Anaiak taldeak alaituta.  
**20:00** Zozketa: Jeneroz betetako karretilla ederra, 400 euroan baloratua. Aginaga.

## ASTELEHENA 30

### MANIFESTAZIOA

**12:00** Debabarreneko Pentsiodunen Mugimenduak deituta. Untzaga.

### KANTU-SAIO IREKIA

**19:00** Euskal kantu tradizionalak ikasteko saioak noiz egin erabakitzeko. Kultu.

## MARTITZENA 1

### ADINEKOEN TOPAKETA

**11:30/14:00** Euskadiko Adinekoen II. Topaketa. Astelena frontoia (amaiera eta luntxa Errebalen).

### AURKEZPENA

**18:00** "Luminiszentekak" erakusketaren aurkezpen irekia, Irantzu Pastor Ordoki eta Igone Mariezkurrena Fernandez eskutik. Andretxea.

## EGUAZTENA 2

### AGURTZEN

**18:00** Bizi-testamentuaren inguruko informazioa, Ikasten elkartearen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

## EGUENA 3

### HITZALDIA

**17:00** Sendagaien erabilera zuzenari eta inhalagailuei buruz. Hizlariak: Ane Zulueta (Zulueta farmazia) eta Amaia Gorrotxategi (Hermanas Azkue farmazia). Beheko Tokia.

## ERAKUSKETAK

### Urriaren 6ra arte:

- **ARRATE KULTUR ELKARTEKO** bazkideen erakusketak kolektiboa. (Topalekua).

### Urriaren 20ra arte:

- **"MNEMOSINE"**, Carmen Palomeroren artelanak. (Portalea).

### Urriaren 20ra arte:

- **"MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK"** (Armagintzaren Museoa)

### Urriaren 1etik

azaroaren 29ra:  
 - **"LUMINISZENTEKAK"**. (Andretxea).

## ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- 28an: 22:30
- 29an: 20:00
- 30ean: 19:30

“Isla perdida”  
THRILER-A



2024/Espainia /128'  
Zuzendaria: Fernando Trueba  
Aktoreak: Matt Dillon, Aida Folch, Juan Pablo Urrego  
Drama/Erromantzea/Neo-noir

## 2 ARETOA

- 28an: 22:30
- 29an: 17:00, 20:00
- 30ean: 19:30

“No hables con extraños”  
BELDURREZKOA



2024/AEB/109'  
Zuzendaria: James Watkins  
Aktoreak: James McAvoy, Mackenzie Davis, Scoot McNairy  
Terrorea/Remake psikologikoa

## ANTZOKIA

- 28an: 22:30
- 29an: 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- 30ean: 19:30

“La virgen roja”  
DRAMA



2024/Espainia /114'  
Zuzendaria: Paula Ortiz  
Aktoreak: Najwa Nimri, Alba Planas, Patrick Criado  
Thriller psikologikoa/30. urteak

## ANTZOKIA

- 29an: 17:00

“Koati”  
ANIMAZIOA



2021/AEB /85'  
Zuzendaria: Rodrigo Pérez-Castro  
Abenturak/Animaliak

**Julian Moro Gil**

5. URTEURRENA  
2019/09/25

“Beti izango zara gure bihotzetan”

- ZURE FAMILIA -



## ZORION AGURRAK



Zorionak, **JAVI** eta **ALICIA**.  
Irailaren 5ian 65 urte ezkondu ziñaziela. Zapatuan famelixa guztiarekin ospatzeko irrikitan gagoz. Patxo eta besarkada potolo bat danon partez.



Ilargia lapurtuko nuke zuretzat gauero. Zorionak, **NOA**txu! 11 musu! Tio Sant.



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARKEL!**  
Atzo 8 urte bete zenduazelako. Jarraitu bizipoz horrekin! Etxeko danok asko maitte zaittugu!!!!



Zorionak, **MALEN,**  
hillaren 20xan 9 urte bete zenduazten eta. Musu potolo bat danon eta, bereziki, Mirenen partez.



Zorionak, **BIDANE!**  
2 urte, sorgintxo! Patxito haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANE.**  
Hillaren 24an 4 urte bete zenduazten eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JUNE,**  
bixar 7 urte beteko dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KOIKILI!**  
Askok maite zaittugu, txapeldun, Artzai eta Naikeren partez.



Zorionak, **YURI!**  
Gaur 6 urte egiten dozuzelako! Ez galdu irribarre hori! Musu bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **PELLO!!!**  
Astelehenian 10 urte beteko dozuz eta! Askok disfrutau. Maite zaittugu!! Txomin eta Elixe.




Zorionak, **NOA,**  
atzo 11 urte egin zenduazelako. Musu bat famelixaaren eta, batez be, Luka, Danel eta Aner-en partez.



Zorionak, **ANE!!!**  
Juan dan irailaren 15ian 4 urte bete zenduazten eta!! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!!!



Zorionak, **MADDI!**  
Domekan 12 urte egingo dozuz! Primeran pasa! Zure famelixaren eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, **JOL,**  
aurreko zapatuan 3 urte bete zenduazelako eta baita zuri be, aitzitxa Jon, domekan egin zenduazelako urtiak. Etxekuan partez.



Zorionak, **JUNE** (abuztuaren 26xan 12 urte bete zenduazten) eta **ELENE** (gaur 10 urte betetzen dozuz). Musu haundi bana bihotz-bihotzez, famelixa guztiaren partez.



**AITANA** eta **MALEN.** Zorionak, bikote!!!!!!! Musu haundi bat betiko lagun partez.



Zorionak, **MARTINA** eta **PAULA,** hillaren 24an 5 urte bete zenduezen eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **BEÑAT** eta **AIORA,** aste honetan 11 eta 2 urte betetzen dozuez eta. Musu potolo bana famelixa guztiaren partez!

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Etxea alokagai Eibar erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldrea eta komuna. 643233843.
- Pisua alokagai Jardinetan, goiko parkinetik gertu. 2 logela, komuna, sukaldrea eta egonela beheko suarekin. Gas naturala. Ortua jartzeko lur sailtxoa. Eguzkitsua eta bista ederrak. 750 hilean. 651678454/658723275.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 631462540.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 634651895. Anabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Externa. 614197781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Orduka. 631425686.
- 21 urteko neska lanaldi partzialeko haurtzain lana egingo luke, bere ikasketekin uztartzeko. 631418235. Nora.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta pasiatzeko. 617571210.
- Neska eskaintzen da kudeaketa administratiboan edo arreta sozio-sanitarioan lan egiteko. 624121726.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632768653.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Esperientzia. 602490595.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 643085598.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 642885605.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko arratsalde. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da bulegoak, etxeak eta obrak garbitzeko. 638421827.
- Neska eskaintzen da denetari-ko lanak egiteko. 747452460.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. 3 urteko esperientzia. 602051567.
- Andereño euskalduna umeak zaintzeko eskaintzen da. Goiz eta eguerdian. Urteetako esperientzia. 628933542.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako eta sukalde-laguntzaille bezala. Autoarekin. 646351853.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita gauzez ere. 679912841.
- Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Orduka. Urteetako esperientzia. 620757528. Arrate.
- Gizonezkoa eskaintzen da pintore lanak egiteko Eibarren eta Ermuan. Baita beste batzuekin lan egiteko ere. Esperientzia. 634155697. Javi.

## 4.2. Langile bila

- Emakumea behar da etxeko zereginak egiteko. Ezinbestekoa: autoa eta soziosanitario agiria. 688670009.
- Sukaldari euskalduna behar da urritik aurrera Eibarko Klub Deportiboak martxan jarriko duen jatetxerako. 665726146 (Iñaki) eta 943201904 (Klub Deportiboa).
- Kamarera/o behar da irailera-ko. 627778980.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Filosofian graduatuak (ingelesezko eta euskarazko C1 tituluduna) LH-ko eta DBH-ko klaseak ematen ditu. 688861740. Urko.
- Gitarra klaseak ematen dira, banaka edo taldeka: harmonia, erritmoa, teknikak, inprobisazioa... la 10 urteko esperientzia. 633585077. La Manouche.
- Ingelesezko klaseak ematen dira. Maila guztiak. 699522514.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



## **BAZKIDE zertarako?**

*Euskarazko mintzapraktikako programak eta ekintzak antolatzeko*



## **BERBETAN**

*Euskara praktikatzeko egitasmoa da, ahozko euskara hobetu, azterketak prestatu edo lagun berriak egin nahi dutenentzat. Euskaraz berba egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak elkartzen dira talde txikietan, astean behin ordubetez. Modu natural eta atseginean euskaraz berba egiteko aukera ematen du.*

# zarelakopara

*Egin zaitez bazkide!*

# gremioen gida



## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ELEKTRIZITATEA

**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA DERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
argentziak  
610 532 922 www.thelecer.com

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
J.A. GISASOLA, 4 - ac  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@cristaleriaacha.com 943 203 903

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko  
AROTZEGIA

balta toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txostea, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 07 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun  
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net



943-206776